96. zenbakia - 2010eko uztaila

artzape

GETARIARRON TOPAGUNEA



LUIS ALKORTA BALENTZIAGA

]GETARIA-ZARAUTZ ITSAS ZEHARKALDIA

FUTBITOKO FINALAK]

Konpartsaren 25. urteurrena

TXOKO
ERRETEGIA

kaia gainean. Tlf. 943 140 539

OSTOLAZA
EDARITEGIA
kaxuelitak eta
plater konbinatuak
Elkano, 33 Tel.: 943 140 214

Saiazgetaria
HOTELA
BILERA GELA DAUKAGU
Roke Deuna 25
20808 Getaria
Gipuzkoa
T 943 140 143
F 943 140 345
E info@saiazgetaria.com
W www.saiazgetaria.com

SAN PRUDENCIO
JATETXEA
JATETXEA - ERRETEGIA
20808 GETARIA
(ERREPIDETIK 600 METRORA)
IKUSPEGI BIKAINAK
943 14 06 27 - 943 14 04 11

OSTOLAZA
ANAIAK
Tailer mekanikoa.
Soldadura eta kaldereria.
Txoritonpe industri gunea, 20.
lonja, portua z/g
20808 Getaria
Tel.: 943 140 110

kutxa

Antxoak eta Bakailaoa
ITSAS
MENDI
www.maisor.com
gutiziak
Kaia, z/g
Eusko Gudari, 5
Tel. 943 140 993
Tel. 943 248 774
GETARIA
ORIO

BABEXA
Getariako dendari elkartea

ENBATA
Kale Nagusia, 14 - DONOSTIA 943 424797

ELKANO
Jatetxea
Herrerieta, 2
Telefonoak: 943 14 00 24
943 14 06 14
20808 GETARIA

POLITENA
GURE BEREZITASUNAK:
• Aste egunean:
Eguneko Menua
• Jai egun eta Asteburuetan:
Luxuxko Pintxoak,
Bokatak eta Razioak.
• Eramateko eskaerak:
• Wi-Fi zerbitzua.
GETARIA
Kale Nagusia, 9
Tel. 943 140 113

ERROTA



OPIL - OKINDEGIA
Elkano, 7
Tel.: 943 140 017

KAIA - KAIPE JATETXEA
General Arnao, 4 - 20808 GETARIA (Gipuzkoa)
Tfno. 943 14 05 00 • Fax 943 14 01 21 • www.kaia-kaipe.com

INDAUX
Tel.: (+34) 943 899 100 Fax:(+34) 943 899 101 indaux@indaux.com
INDUSTRI AUXILIARRAK (INDAUX), S.A. SAN PRUDENTZIO, S/N. 20808 GETARIA
APDO. 132. E-20800 ZARAUTZ (GIPUZKOA) www.indaux.com

"Oraingoan oporretan izango gara!"

artzape

96. zenbakia

2010eko uztaila



]5/Inkesta:
Aparkatzeko zailtasunak

]6-7/Getarian zer berri?
Getaria-Zarautz itsas zeharkaldia
Futbito finalak

]8-9/Elkarrizketa: **Beñat Gereka**

]10/Elkarrizketa: **Luis Alkorta Balentziaga**

]12-16/Erreportajea:
Konpartsaren 25. urteurrena

]19/Errezeta - Literatur Txokoa

]21/Argazki-txokoa:
Udako aisialdiak

]23/Akordatzen: ***Antxirrian***

artzape
Eskualtxeta kulturgunea
Krixketaneko Iturrigaina

Tel.: 943 00 05 48
artzape@topagunea.com

Gure Txeru Elkartea

[argitaratzailea] Gure Txeru Elkartea [koordinazioa] Amaia Iribar eta Maider Ostolaza [lan taldea] Izaskun Larrañaga, Monika Uzkiza, Ane Azkue, Jon Illarramendi, Josune Urresti, Kepa Iribar, Imanol Iribar, Zigor Saizar, Amets Etxabe, Irantzu Ezenarro, Aitor Irigoien, Beñat Gereka, Mikel Mugika, Getariako Bertso Eskola, Getaiko Gaztetxia [kolaboratzaileak] Xabi Intsausti, Josi Erauskin, Xabier Alberdi eta Suso Perez [argazkiak] Artzape [publizitatea] Artzape [inprimaketa] Gertu [tirada] 1150 ale [lege gordailua] SS-504/01 [ISSN] 1578-469X

Getariako Udalak, Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria

gutunak

GAZTETAPE, nire hondar alea

Getariako Gaztetape hondartzari buruz kontu ugari entzun dut azkenaldian, eta neure iritzia eman nahi nuke lerro hauen bidez. Ez dut inor mintzeko asmorik, baina azaldu nahi nuke Gaztetape bizitzeko eta ulertzeko beste modu batzuk ere badaudela; pentsamolde hau askotan ozenago entzuten ditugun kexak bezain zilegia eta herrikoa dela iruditzen zait, gainera.

Nahiz eta Getarian bi hondartza izan, umetatik amak Gaztetaperako bidea erakutsi zidan. Orduz geroztik, oso une ederrak pasatu ditut bertan. Ume eta gaztetako garai hartan, herriko jende gutxi joaten zen bertara, nahikohondartza basatia zelako. Urteak pasatu ahala, ordea, kontuak asko aldatu dira. Hondartzara jaisteko bidexka bat besterik ez zen tokian, asfaltozko errepidea egin zuten, eta haren atzetik etorri ziren sorosleak,txiringitoa bere musikarekin, dutxak,surflarien txabola, komunak... Motzean esanda: Gaztetaperi gizakiak bere nortasuna kendu dio, beste leku askorekin egin duen bezala.

Orain, nire ikuspuntutik, naturak bere lekua berreskuratu du, hondarra eraman eta azpiko harriak bistan utzita. Itsasoa ez dabil gure erritmora, hark ez du ezagutzen hondartza-denboraldi ofizialik, ez antxoaren biomasa zientifikorik, ezta termometroz neurtutako uraren hotzberorik ere.

Itsasoak berez funtzionatzen du, eta Gaztetapetik hondarra eraman du.

Onartu dezagun itsasoaren martxa. Izan ere, zer, orain zerbitzurik ematen ez digun hondartza bihurtu al da ba Gaztetape? Ez al du balio ezertarako?

Bizi zaitez munduko igerilekurik handiena duen etxe batean. Ez da denbora asko pasatu erridikulua eginez batzuek etxeak saltzeko lelo hori erabili zutenetik. Orain, berriz, harriek ateratzen duten soinuarekin batzuk ezin omen dute lorik hartu; horixe da itsasoari begira bizitzearen luxua . Eta hor daude surfa maite dutenak ere; orain ezin omen da surfean egin... baina han ibili garenok badakigu Gaztetapen beti egon direla haitzak ur barrura sartuz gero.

Iritzi honek guztiak errespetatzen ditut, baina ulertu ez. Eta ez zait iruditzen Gaztetaperentzako irtenbidea kanpotik ekarritako hondar mordoa botatzea denik. Gaztetape ulertzeko eta gozatzeko beste modu naturalago batekin jarraitu nahiko nuke, beste herritar askok bezala, ingurua ezin baitugu beti gure gustu eta nahien arabera moldatu.

Begoña Larrazabal

Zure gutuna Artzapen argitaratzea nahi baduzu, Txeruko postontzian utzi, Eskualtxetara ekarri edo artzape@topagunea.com helbidera bidali zure izen-abizenekin. Gutunak gehienez 200 hitz izan beharko ditu eta luzeagoak direnak mozteko eskubidea izango du Artzapek. Ez dugu testu iraingarririk onartuko eta Artzapek ez du bere gain hartuko argitaratzen diren iritzien gaineko erantzukizunik.

] inkesta Aitor Irigoien, Beñat Gereka eta Mikel Mugika]

Uda iristearekin batera, Getarian ohiko bihurtzen dira kotxea aparkatzeko zailtasunak. Aurten, gainera, herrian iskanbila eta haserre handia piztu zen hasieran, Eusko Jaurlaritzaren erabakiz herritarrok portuko aparkalekua ordaindu behar genuela-eta. Azkenean, ordea, Udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko akordioa dela-eta, herritarrok ez dugu ordaindu beharrik izango. Erabakiak herritarren haserrea apaldu du, baina asko minduta daude oraindik hasierako erabakiarekin. Zer iritzi duzu gai honen inguruan?

Balbino Larrañaga

Nire iritziz, oso egokia izan da Udalaren eta "Puertos"en arteko akordioari esker herritarrek portuan doan aparkatu ahal izateko aukera lortzea. Erabaki zuzena iruditzen zait, orain arte herritarrek doan aparkatu izan baitute udan portuan. Getariarrak ez direnei sarrera kobratzea, berriz, ez zait gaizki iruditzen, egun, ia herri guztietan egiten baita; TAO oso hedatua dago. Bestalde, sarrera kobratzeaz gain aparkalekuen gaia ez bada ongi antolatzen, kaosa sortu daiteke portuan, jende asko etortzen den egunetan.

Itziar Etxarte

Nik uste dut aurten gaizki kudeatu dutela dena hasieratik. Oso gogorra eta zentzugabea iruditu zitzaidan herritarrek ordaindu behar izatea; logikoena eta zuzenena herritarrok doan izatea litzateke.

Ordaintzeari dagokionez, aurten inoizko fundamentu eta antolakuntza eskasena ikusten dut. Errazena sarrera kobratzea da, baina gero jendeak nola eta non aparkatzen duen ere zaindu beharra dago. Izan ere, aurten, oraindik jende asko etorri ez den arren, hainbat kotxe oso gaizki aparkatuta egoten dira, eta horrek arazoak eragin dizkie portuko langileei (arrantzaleak...). Beraz, nire iritziz, sarrera kobratzeaz gain, jende gehiago jarri behar da aparkalekuak zaintzen.

Xabier Goikotxea

Herritarrentzat doan jartzearena oso erabaki garrantzitsua iruditzen zait eta ongi dago Udalak hori lortu izana. Hala ere, aurtengo sistema berriarekin fundamentu eta seriotasun gutxiago dagoela iruditzen zait; beste urteetan hobeto kudeatuta zegoelakoan nago. Aparkalekuen gaia kontrolatzeko langile gehiago jarri beharko liratekeela uste dut.

Artzapetik begira

Xabi

Errege oilarra

Norbaitek gari-ale bat zela uste zuen; eta oiloa noiz agertuko eta jango ote zuen beldurrez bizi zen. Psikoanalisi saio batzuk egin ondoren azkenean konbentzituta geratu zen: gizakia zen eta ez gari-ale bat.

Sendatu eta egun batzuetara, oilo bat ikusi zuen kalean eta ziztu bizian psikoanalistarengana bueltatu zen beldurrez.

-Baina zeren beldurrez? Orain badakizu gizakia zarela, ezta?

-Nik bai, eta oiloak?

Kontuz oilarrarekin, pentsatu nuen. Gutunontzia ireki, eskua sartu eta zast! han zegoen oilarra zain. Etxeko letra, 800 euro; autoarena 150 euro; trafikoko isuna 50 euro; musika eskola 47,50 euro; udaletxeko ura eta besteak 35 euro; telefonoa 97 euro;.... Eta beste fakturen artean ez dakit ze museoren inaugurazioa, eta eskupaper bat: hiritartasunaren hezkuntza. Ze izango da hori, galdetu nion nire buruari. Hainbeste faktura ikusi eta gero ulertu nuen zer herritar mota egin nahi duten gurekin.

Niri politika bost axola! Politikaz kanpo bizi nahi dut. Tomateak, baratza... Nire gauzak! Hori nahikoa da niretzat! Besteak hor konpon!

Harridura ikur gehiegi, egia izateko.

Futbito Txapelketan Indaux taldea nagusi

Gure Txeruk antolatutako XIII. Xabi Iñurrita Memorialean Indaux taldea nagusitu zen, Saiaz taldeari 7 eta 3 irabazi ostean; hirugarren postua Gaglo taldearentzat izan zen, eta laugarrena, berriz, Giroak lortu zuen. Bestalde, Mayflower eta Katrapona taldeek Kopako partida jokatu zuten, eta lehenengoarentzat izan zen saria. Indaux taldeko Kepa Larrañagak jaso zuen atezain onenaren saria, eta Gure Txeruren oroigarria, Floren Adrianen omenez, Irizabal taldekoek jaso zuten. Zorionak guztioi!

Indaux taldeko jokalariak sariarekin.

Artzapeko otarra Ibon Gerekarentzat

Joan den uztailaren 17an eta 18an Artzape aldizkariak zozketatu zuen otarra Ibon Gerekak irabazi zuen. Mila esker zozketako txartelak erosi zenituzten guztioi!

Abuztuan oporrak

Abuztuaren bukaeran ez gara zuen etxeetan izango, baina tarte horretan indarberrituta, iraila amaierarako berriz prest izango gaituzue, berriro lanerako gogoz. Beraz, orain arte bezala, zuen argazki, iritzi, gutun, zorion-agur eta abar jasotzeko irrikaz izango gara. Laster arte eta ondo-ondo pasa jaiak!

Getaria-Zarautz igerian



Itsas zeharkaldiaren irteera unea.

Berrogeigarrenez ospatu zuten joan den uztailaren 18an Getaria-Zarautz itsas zeharkaldia Zarautz Balea Igeri Kirol Elkarteak antolatuta eta aurten denborarik onena Adnan Mustafic-ek egin du. Aurreko urteekin alderatuz, hainbat aldaketa izan ditu; alde batetik, normalean egiten den data baino lehenago egin dute, eta, bestetik, irteera lau multzotan sailkatuta egin zen, igerilariek egiaztatutako denboraren arabera. Guztira, 1.200 bat igerilarik egin zuten Getaria eta Zarautz arteko 2,8 kilometroko luzea, eta horietatik hamabost inguru getariarrak izan ziren. Garikoitz Aldalurrek egin zuen denborarik onena gizonezkoen senior mailan; Xabier Larrañagak gizonezkoen master mailan, eta beterano mailan Fermin Mendizabal nagusitu zen. Emakumezkoetan, berriz, Aitziber Alvarezek egin zuen denborarik onena senior mailan eta Agurtzane Urangak beteranoen mailan. Zorionak parte hartzaile guztioi!

IX. Salbatore Biatloia

Miren Casado (20:04:18) eta Jon Unanue (16:45:01) izan ziren lehenak Salbatore Biatloiko helmugan. Guztira 89 partaide izan ziren, eta horietatik lehen getariarrak Miriam Urbieta (23:50:76) eta Pedro Aiestaran (19:12:39) izan ziren; beteranoetan, berriz, Roberto Ostolazak eraman zuen saria (23:59). Zorionak guztioi!

Biatloian garaile izandako parte hartzaileak.

“Arrantzaren Ubera” izeneko erakusketa

Udalak joan den uztailaren 23an hasi eta uda guztian egongo den erakusketa zabaldu du Katrapona kaleko bigarren zenbakian (Kaia/Kaipe parean). Erakusketaren asmoa, hain zuzen ere, arrantzaren mundua eta arrantzaleen historia herritarrei gerturatzea da, eta, bidez batez, herriko jarduera nagusia zein den gogoraraztea: arrantza. Bost ataletan dago banatuta: inguraketa-arrantza, atun-arrantza, eguneko arrantza, tretza, eta arrantzalea eta baporeko tresnak. Horrekin guztiarekin lotuta, merchandizing-eko produktu berrien aurkezpena egin zen uztailaren 27an udaletxeko pleno aretoan: nikiak, mantalak, edalontziak…. Horiek guztiak herriarekin lotuta duen marrazkiekin apainduta.

Katrapona kalean Udalak zabaldu duen erakusketa.

Getaiko Gazte Asanbladaren bigarren urteurrena

Atzo sortu zela dirudien arren, dagoeneko bi urte bete ditu Getaiko Gazte Asanbladak, eta, urteurren hori ospatzeko, bazkaria, triki-poteoa, jolasak eta kontzertuak antolatu zituzten joan den uztailaren 24an. Zorionak!

artzape

Lehiaketa berria

SARIA:

ITSAS MENDI gutiziak

Eskainitako otar eder bat

GALDERA:

Zenbat konpartsa ezberdin egin dira gaur arteraino (2010ekoa kontuan izan gabe)?.

Artzapen bazkidea bazara eta erantzuna baldin badakizu, e-mailez (artzape@topagunea.com), gutunez (kale nagusia 1-3 z/g) edo deitu (943 000 548) IRAILAREN 23a BAINO LEHEN.

Euskadiko Biodibertsitate Zentroa

2009-2010 ikasturtean, 7.275 ikaslek bisitatu dute Euskadiko Biodibertsitate Zentroa. Horietatik, bost mila baino gehiagok zentroko eskola-programa didaktikoa burutu dute, eta ikasle-taldeekin batera etorritako irakasleek oso ondo baloratu dute programa hori. Gainontzeko ikasleek zentroko erakusketan Busturian (Bizkaia) dagoen Euskadiko Biodibertsitate Zentroa bisitatu duten ikastetxeen %83k Eskolako Agenda 21 programan parte hartu du, ikastetxeetan garapen iraunkorraren alde lan egiteko funtsezko tresnan. Ikastetxe horietatik guztietatik, %87 Bizkaiko eskolak dira, %7 Gipuzkoakoak eta %6 Arabakoak.

Euskadiko Biodibertsitate Zentroko ingurumen-hezkuntzako taldeak unitate didaktiko berri bat garatu du; oraingoan, kostaldeko ekosistemetako biodibertsitateari buruzkoa. Aurretik padurako ekosistemari buruzko unitate didaktikoa garatua zuen. Ihobe Sozietate Publikoak kudeatzen duen zentroak hezkuntza-ziklo guztiei egokitutako jarduerak eskaintzen ditu, haur-hezkuntzatik hasi eta batxilergora edota prestakuntza-zikloetara. Zentroaren ingurumen-hezkuntzaren eskaintza handitzeko asmoz, hezkuntza-taldeak lanean dihardu datorren ikasturteari begira beste unitate didaktiko bat prestatzeko.

Euskadiko Biodibertsitate Zentroa-

Madariaga Dorretxe Ihobek kudeatzen du, Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoak (Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila). Ihobe Sozietate Publikoak Euskal Autonomia Erkidegoko eragile guztiak mugiaraztea eta ingurumena nahiz pertsonen bizi kalitatea etengabe hobetzeko lan egitea du xede, betiere Eusko Jaurlaritzaren planekin, zuzentarauekin eta garapen iraunkorraren irizpideekin bat etorriz.

Informazioa gehiago:
Tel.: 943 896024
www.urolakosta.org
maizpuru@getaria.org

Beñat Gereka: “ErrezEta ikasiz”

EikenBANK-en III. edizioaren saria irabazi zuen joan den ekainaren 17an Beñat Gerekak, Erika Elizarik eta Alaitz Anabitartek osatutako taldeak. Lehiaketa horretara 67 ideia aurkeztu zituzten, eta horietatik guztietatik “ErrezEta ikasiz” nagusitu zen, gastronomia eta ikasleen bizitza uztartzen dituen programa. EikenBANK-eko epaimahaia Euskadiko produkzio-etxe nagusiek osatzen dute, eta Beñatek, Erikak eta Alaitzek aurkezturiko ideiaren orijinaltasuna nahiz merkataritza-bideragarritasuna saritu dute.

Gustura?
Bai, oso gustura.

Zer da EikenBANK?
EikenBANK sarian Euskadiko produkzio-etxe garrantzitsuenak elkartzen dira; sariaren bidez, nolabait, oraindik profesionalak ez diren ikasleei bultzada bat ematea dute xede, eta, noski, bide batez sektore horretan sartzen joan daitezen laguntzea.

Nola animatu zineten lehiaketan parte hartzera?
EikenBANK-ekoak Unibertsitatera etorri ziren ikasleoi hitzaldi bat ematera, eta bertan lehiaketaren nondik norakoak azaldu zituzten. Gu animatu egin ginen; hasierako ideia Erikak izan zuen, eta, gero, pixkanaka, guztion artean gorpuzten joan ginen.

Hirurok ikasleak?
Bai, Erikak eta nik Ikus-entzunezko Komunikazioa ikasi dugu eta Alaitzek Kazetaritza.

Ideia: gastronomia eta ikasleen bizitza.
Bai, kontua da ez zela munduko ideia onena aurkitu behar, baizik eta erraz egin daitekeen zerbait; gainera, ekonomikoki bideragarria izan behar da. Guztiok pisuetan bizi izan gara eta ideia hortik dator: bertako bizitza azaldu eta, bide batez, gustuko errezeta bat aurkezten du ikasleak.

Zer lan aurkeztu behar zenuten?
Lehiaketak bete beharreko hainbat puntu zituen: gaia, sinopsia labur bat, baliabide teknikoak, zer kamera erabili, gutxi gorabeherako aurrekontua…

67 parte-hartzaile asko dira, ezta?
Hala da; horietatik guztietatik 10 ideia aukeratu zituzten, eta horiek bost minutuko aurkezpen bat (pitching) egin behar

izan genuen epaimahaiaren aurrean. Hau da, gure ideia saldu behar genien.

Zer motatako aurkezpena egin zenuten?
Zati bat Donostian grabatu genuen, Erikaren anaiaren lagun baten pisuan, eta beste zatia Getariako Eroskin grabatu genuen, errezeta egiteko osagaiak erosten. Hau da, bideoan honako hauek agertzen dira: ikaslearen pisua, euren bizimodua, zer ari diren ikasten, lanik egiten ote duten, zenbat lagun dauden pisuan… Azkenik, errezeta bat prestatzen dute.

Irabaztea espero al zenuten?
Ez, izan ere Erikak ideia proposatu zuenean ona iruditu zitzaidan, baina ez nuen usteirabaziko zuenik. Saria banatu behar zuten egunean, amaierara arte iritsi ginen hamar finalistok ez genekien bakoitzak zer egin zuen. Sariak hamargarren postutik behera ematen hasi ziren, eta, lehen postura gerturatzen ari ginela ikustean, bihotza bere lekutik atera behar zitzaidala usten nuen.

Zer sari jaso duzue?
2.000 €-ko saria, beste 2.000 € ideia erosteagatik eta 4.000 €-ko beka bat; azken diru horren bidez, produktua gauzatu eta ETBn emititzeko prest izan behar dugu, lau hilabeteko epean.

Zer produkzio-etxek erosi du ideia?
Baleuko produkzio-etxeak erosi du, eta bertan garatu beharko dugu ideia; behin gauzatuta, ETBn emitituko dute.

Noiz hasiko zarete?
Uztailaren 23an firmatuko dugu kontratua, eta orduan esango digute noiz hasiko garen.

“Erraz egin eta ekonomikoki bidera-garria izan behar du”

Zuek aurkeztuko al duzue?
Ez, gure proposamena aurkezlea kamera atzean egotea litzateke, ez litzateke ikusiko. Gu gidoilariak bakarrik gara, ikaslea bera da protagonista.

Zenbateko iraupena izango du produktuak?
Ordu erdi iraungo duen kapitulu bat egiteko asmoa dugu; gero zortea badago…

Zer izan da zuretzat sari hau irabaztea?
Poztasuna, ikaragarria, eta, horrez gain, ikasten igarotako lau urteek zerbaitetarako balio izan duten sentimendua.

Interesgarria ere bai, ezta?
Noski, zuk egindako zerbait telebistan ikustea ikaragarria da.

Aurrera begira zer?
Bada, oraingoz, Baleuko produkzio-etxearekin lanean hastea; lehen ikasten jarraitzeko ideia nuen, baina orain aukera hau sortu da eta horri helduko diot. Gainera, hilabete honetan beste sari bat ere irabazi dugu, Portugaleten izan den Cinexpress-eko 3. saria lortu genuen Erikak eta bere anaiak, klaseko lagun batek eta nik, 450 €-koa. Sariketa hartan goizean gaia eman ziguten eta gauean bost minututako film laburra aurkeztu behar izan genuen.

Sari guztiak garrantzitsuak, bai?
Bai, guztiz; zerbait egiteko gai zarela ikusteak poza ematen du. Horrez gain, sariek ateak zabaltzen dituzte, eta hori oso garrantzitsua da, batez ere, curriculumerako.

Lehiaketa gehiagotara aurkezteko asmorik?
Ziur aski bai; izan ere, Topaguneak beste lehiaketa bat jarri du martxan, euskararekin zerikusia duen zerbait, eta seguruenez bertan parte hartzera animatuko gara!

Beñat Gereka, Erika Elizari eta Alaitz Anabitarte lortutako sariekin.

Luis Alkorta Balentziaga
"Beti izan dut Getaria bihotzean"

Uztailan berriro gure artean izan dugu Luis Alkorta getariarra. Venezuelan bizi da, eta azkeneko aldiz duela bost urte etorri zen jaioterrira; orain, 90 urterekin (Getarian bete ditu, gainera), berriro gure artera etortzera animatu da, bere familia lagun duela. Berarekin elkarrizketa bat egiteko parada izan dugu.

Zer urtetan jaio zinen?

1920ko uztailaren 7an jaio nintzen Getarian. Haurtzaroko oso oroitzapen zoriontsuak ditut. Nire herrian bizitako urte haiek beti izan ditut gogoan, bizitza osoan. Buruan jarritako guztia egiten genuen garai hartan: lagunekin jolastu, kaian arrantzan aritu, igeri egin, kinkilia egin (txotxekin egiten zen jolasa)… Paradisua izan zen niretzat orduko bizitza.

Non egin zenituen lehen ikasketak?

Lehenik, Getariako eskolan ibili nintzen ikasten, eta, gero, Zarautzen ikasi nuen La Salleko Anaiekin, 13 urte bete arte. Zarauztik Baionara jo nuen, "sekundaria" deitzen zitzaion batxilergoa egitera. Lau urte pasa nituen han ikasten. Handik Bruselara joan nintzen Merkataritza eta Ekonomia frantsesez egitera. Udan, berriz, Londresera joaten nintzen ingelesa ikasi eta praktikatzera.

Noiz arte egon zinen Belgikan?

Alemaniarrek 1939an Poloniari eraso zionean, ni Amberesen nengoen; orduantxe hasi zen Bigarren Mundu Gerra. Amberesetik azken itsasontzia hartu eta Vigora ihes egin nuen; izan ere, abertzale familiakoa nintzenez, beldurra nuen iparraldetik etxera etortzeko, Francoren tropak nonnahi baitzeuden.

Eta ze giro bilatu zenuen hemen?

Vigotik etxeratu eta hilabete gutxira, Valladolidera joan nintzen Ekonomiako ikasketekin jarraitzeko, jesuita baten gomendioz. Unibertsitatean zerbitzu militarra udan egiteko paperak behar nituela eta, ez zizkidaten eman nahi izan, fitxatuta nengoela esan baitzidaten. Hala, atxilotu eta Miranda de Ebroko kontzentrazio-esparrura eraman ninduten. Sei mila preso geunden han, bizi baldintza oso gogorretan. Han banatu egiten zituzten presoak, eta ni, "rojo separatista" omen nintzelako, Cadizera urrundu ninduten, mendeku gisa. Batetik bestera ibili ninduten bi urte eta erdian, eta berriro ere Mirandara eraman ninduten.

Baduzu orduko pasadizo xelebreren bat?

Bai, noski. Milaka pasadizo ditut ordukoak, baina bat kontatzekotan honako hau kontatuko dut: Mirandako kontzentrazio-esparruan mina hartu nuen eta Zumaiako presoentzako ospitalera ekarri ninduten sendatu bitartean, orduko "Hotel Amaya"ra. 1941eko Gabonetan, han nengoela, ihes egin nuen ospitaletik eta Getariara etorri nintzen familia giroan bisigua jatera; goizaldean, esnatzerako itzultzea zen asmoa. Ordea, uste baino lehenago konturatu ziren falta nintzela, eta goizeko hiruretan guardiak etorri ziren nire bila. Hurrengo egunean zigorturik berriro Mirandara itzuli ninduten, eta 1942ko uztailan libre geratu nintzen.

Zer egin zenuen handik irtetean?

Deustura joan nintzen ikasketekin jarraitzera, baina zaintzapean nengoenez, astero gobernu militarrera joan beharra neukan paper bat sinatzera. Giro harekin nazkatuta Venezuelara alde egin nuen; izan ere, Belgikan nirekin ikasitako bilbotar bat han zegoen. Hasieran irakasle-lanetan aritu nintzen Caracasen, ikasten jarraitzen nuen bitartean. New Yorken ere egon nintzen 1946an, Merkataritza eta Negozioak ikasten. Caracasera iritsi bezain pronto ezagutu nuen Yolina nire emaztea, eta harekin ezkondu nintzen. Lau seme-alaba izan genituen. Venezuelan nengoela, bertan bizi ziren bi getariarrekin ere egin nuen topo: Emilio Kintana eta orain gogoratzen ez naizen beste bat.

Zenbat urte daramazu Caracasen bizitzen?

Bada, 65 urte daramat Caracasen bizitzen; hala ere, sarritan etorri izan naiz Getariara. Enpresa bateko gerentea nintzenez, asko bidaiatzen nuen Amerikan eta Europan zehar eta beti bilatzen nuen tarte bat Getariara etortzeko. Beti izan dut bihotzean Getaria. Pentsa, Caracasen egin nuen etxeak frontoia eta guzti zeukan, eta etxeari ere Getaria jarri nion izena.

Asko sentitzen al zenuen Euskal Herriaren hutsunea?

Hara bizitzera joan nintzenetik egunero izan ditut gogoan Getaria, Euskal Herria eta euskaldunak. Getariako koadroak ere pintatu izan ditut, eta askotan haien aurrean eserita gaztetako garaiak gogoratzen ditut.

Euskara ez ahazteko nola praktikatu duzu?

Nire ama-hizkuntza euskara izan denez, beti pentsatu izan dut euskaraz. Caracasen ere praktikatu izan dut. Horrez gain, Angel eta Mariano nire anaiak eta ilobak tarteka hona etortzen ziren, merkantzia-ontzian ibiltzen baitziren itsasoan, Amerikan. Nola edo hala ondo eutsi diot euskarari. Getariara etortzen naizenean hala esaten didate: "hik oaindik Getaiko hizkera eitten dek". Harro nago horretaz.

GETAIKO GAZTE ASANBLADA GAZTETXETIK:

Kaixo lagunok:

Oraingoan bai, oraingoan lortu dugu gure orrialdetxoa betetzea Artzape herri-aldizkarian, aurreko hilabetean ezin izan baikenuen gure idatzia kaleratu arazo tekniko batzuk izan zirela medio; baina hilabete honetan hemen duzue gure berri (ez zarete gutaz libratuko).

Hasteko, ekainean eta uztailean egon diren kontzertu eta ekitaldien berri emango dizuegu:

- **Ekainak 12:** Dar eta In your face taldeek eman zuten kontzertua, eta giro oso polita sortu zen.

- **Ekainak 19:** Artzaperen aldeko festan, gure laguntza eman nahian, kontzertu batzuk antolatu genituen; 2 talde eta dj-a. Talde horietako bat Ras Miguel & Tafari izan zen.

- **Uztailak 9:** Getaiko gaztetxean eskualdeko 2 talde izan genituen; alde batetik, destr-oi! Zumaiko taldea eta, bestetik, Citizen Kane Orioko taldea. Lehenengo oriotarrek jo zuten, eta, behin motorrak berotuta, zumaiarrek amaiera ezin hobea eman zioten. Giro ederra egon zen nahiz eta jende gehiegi ez egon.

- **Uztailaren 24a (larunbata):** gaztetxearen bigarren urteurrena ospatu genuen. Lehenengo, herritarrok poteoa egin genuen, eta, gero, denok berdura plazan elkartu ginen bazkari eder batez gozatzeko. Hura amaitzean, trikitilarien laguntzaz, giro polita sortuz zen; kalez kale poteoa egin genuen, eta, tartean, jolas batzuk ere egin genituen. Afalostean, gau aldera, gaztetxean kontzertuak izan genituen ohi den moduan: bertako talde bat, Street boys army, eta A-13. Herritarron kontzertua ikustera jende ugari azaldu zen eta ohi baino ikuskizun hobea eskaini ziguten gure lagunek.

Azkenik, esan oso gutxi falta dela getariarrok hainbeste itxaroten ditugun festetarako, eta, gainera, Getaiako Gazte Asanbladak ekitaldi ugari antolatu ditu aurten ere. Horrez gain, herritarrak gonbidatu nahi ditugu, eta, proposamenik izanez gero edo esku bat botatzeko prest egonez gero, ostegunero arratsaldeko 19:30ean horiek aurkezteko aukera duzue asanbladetan parte hartuz; gure esker ona izango duzue. Eta ez ahaztu gaztetxeko ateak zabalik dituzuela, ez dugu eta hortzakarik egiten!!!!!

Laster arte! Festa onak igaro ditzazuela!!!

GETAIKO GAZTE ASANBLADA
GGA

Konpartsa: 25 urtez parte-hartzea nagusi

Gure Txeru elkarteak duela 25 urte aurrera atera zuen ekimena guztiz gorpuztuta dagoen ekitaldia da egun; konpartsa egitearen ideia, berriz, orduko alkatea zen Mariano Camiorena izan zen, eta honek, Txeruko kideei proposatu zien horrelako zerbait antolatzea. Azken horiei ideia gustatu eta halaxe antolatu zuten lehen konpartsa Udalaren laguntzarekin. Urte horietan guztietan, hamar konpartsa ikusteko aukera izan dugu, eta horietatik bederatzi izan dira ezberdinak; izan ere, hasierako bi urteetan konpartsa bera eskaini zuten, Sanba, hain zuzen ere. Aurten, Udalak antolatuta, horietako batzuk berriro ikusteko aukera izango dugu: Mexikoko dantzak, Baltsa-Charleston, Moulin Rouge eta 60ko hamarkada.

Ezingo genuke, ordea, konpartsaz hitz egin herriko jendearen partaidetzarik gabe; aurtengoan ere 40 bikote inguru dabiltza, buru-belarri, konpartsa prestatzen. Horiek guztiak zuzentzen, berriz, Joana Del Hoyo Marisa Merino Dantza Eskolakoa, Josetxo Fuentes eta Isaak Aranbarri dabiltza.

Dudarik gabe, dantzariak izaten dira ageriko protagonistak, baina badira ezkutuan dauden protagonistak ere, herriko hainbat lagunek osatutako taldea; horiek konpartsaren atzeko lana egiten dute, egun horretan guztia prest eta egoki egon dadin. Hamaika bilera egin dituzte, ez aurten soilik, baita eta orain artean izan diren konpartsa guztietan ere: konpartsaren gaia, zer arropa, zer musika, zer karroza... dena erabaki behar izaten da. Isilean egindako lana, atzeko lana, alaitasuna eta haserreak... hainbat sakrifizio eskatu izan duen lana; oro har, martxoa edo apirila aldera hasten dira elkartzen, eta eguna hurbiltzen doan heinean, noski, sarriago.

1985-1986 Sanba

Brasileko inauterietako mugimenduek eman zioten hasiera ibilbideari. Bi urtez jarraian egin zuten, 1985ean eta 1986an; 1985ean, gainera, bi aldiz egin zuten: Salbadore egunean, gauean, eta, abuztuaren 7an, arratsaldean, izugarrizko beroa egiten zuela. Gure Txeru elkarteko batzarkideen ekimena izan zen, eta helburua parte-hartzea sustatzea zen, batez ere; azkenean, halaxe izan zen, eta ekimenak lagun ugari elkartu zituen, adin guztietako 100 bat lagun (gazteenak 14 urte zituen). Koreografiaren prestaketa-lanak Azpeitiko Gurutze Larrañaga irakasleak egin zituen, eta, batez ere, dantzarien "espresibitatea" ateratzea eta talde bakoitzaren ezaugarriak indartzea zuen xede; nolabait esateko, partaideak "lotsagabe" jokatzea nahi zuen.

1994 Baltsa

Urte batzuetako etenaldia eta gero, 1994. urtean hasi zen berriro konpartsa. Baltserako, errege-erreginez osatutako karroza prestatu zuten, eta dantzariak dotore jantzi ziren: gizonezkoak frakarekin eta garaiko jantziekin, eta emakumezkoak ezkontza-soinekoekin.

Koreografo- eta irakasle-lanetan Donostiako Eskola Dantza Taldeko kideak aritu ziren: Josetxo Fuentes eta Xabier Mendizabal. Urte hartatik aurrera, bi urtetik behin konpartsa antolatzen hasi ziren.

Taldeko kideek nahiz dantzariek borondatez hartzen dute parte; txalogarria inondik ere. Parte-hartzea, alaitasuna eta festa-giroa izan dira konpartsa guztien ezaugarri. Izan ere, konpartsak egiten hasi aurretik, gazte-koadrilen ekimenez ohikoa zen Salbatore festetan estanpak egitea; hau da, koadrila bakoitzak gai jakin bat aukeratu, mozorrotu, eta herrian desfilea egiten zuen. 1980. urtean, antzinako euskal ezkontza ere antzeztu zuten, eta herritarren parte-hartzea handia izan oso.

1985ean, konpartsak alai hasi zuen ibilbidea, Brasileko sanbaren erritmoekin, hain zuzen ere; harrezkero, honako konpartsa hauek izan dira ikusgai: Baltsa, Mexikoko dantzak, Countrya, Ekialdeko dantzak, 60ko hamarkada, Dantza Latinoak, Moulin Rouge eta Alandalus.

1996 Mexikoko dantzak

Herriko kaleak Mexikoko kolore alai eta biziez jantzi ziren, dantzarien arropen bidez, eta dantzak ere halakoak izan ziren. Urte hartan, konpartsan zenbait aldaketa egin ziren: adina zehaztu zen (18 urtetik gora) eta bikoteak osatzeko baldintza ezarri zen, gizonezkoez eta emakumezkoez osatu behar izatea; baldintza horren bidez, gizonezkoak konpartsan parte hartzera animatu nahi ziren.

Dantzan indarrean hasteko, tekilari kolpe egin zion batek baino gehiagok; ziurrenik horiek izango ziren kalean behera zihoazela musika eten zen unean abesten jarraitu zutenetako batzuk.

Urte hartan, ikusleen artean benetako mexikarrak ziren ustea zabaldu zen, eta honako esaldi hau entzun zen: "Baina getaiarrak txun da!".

Koreografo-lanetan Eskola Dantza Taldeko Josetxo Fuentes eta Xabier Mendizabal aritu ziren.

1998 Countrya



Estatu Batuetako mendebaldeko dantzez gozatzeko aukera izan zen 1998an; dantzariek "Siete novias para siete hermanos" izena jarri zieten urte hartako gaiari, eta mendebalde urruneko gurdiak eta haien zaldunek osatu zuten urte hartako karroza. Koreografia irakasleak, Eskola Dantza Taldeko Xabier Mendizabal eta Mamen Amunarriz izan ziren.

2000 Ekialdeko dantzak: Errusiako dantzak

Urte hartan, hankak gora eta behera astinduz, nahiko lan izan zuten Kale Nagusia igotzeko, eta, noski, hainbatek vodkari tragoxka bat eman zioten saltoak arinago egin ahal izateko. Koreografia hura ere Eskola Dantza Taldeko Xabier Mendizabal eta Mamen Amunarrizek egin zuten.

2002 60 hamarkada

32 bikotek ederki bete zituzten Olivia Newton Johns eta John Traboltaren paperak.

Garaiko motoak, sidekarrak… erabili zituzten konpartsa osatu zuten karrozakoek. Orduan, koreografia-irakaslea berria izan zen, Marisa Merino Dantza Eskolako Joana Del Hoyo. Zumaian ere emanaldia eskaini zuten.



2004 Dantza Latinoak

Caribe aldeko musikarekin, dantzarien aldakak eta gorputzak mugimenduan jarri ziren. Hondartzako "txiringitoa" muntatu zuten traktore baten gainean joan ziren karrozako kideak.

Koreografia-irakaslea aurreko urteko bera izan zen, Marisa Merino Dantza Eskolako Joana Del Hoyo.

2006 Moulin Rouge

Pariseko doinuek kale-kantoi guztiak bete zituzten; doinu esanguratsuak, inondik inora. Frontoian eszenatoki bikaina prestatu zuten, Moulin Rouge irudikatzen zuen errota eta guzti: emankizun amaieran, errota hura atzera gordetzeko unea iritsi zenean, nahiko lan eta barre eragin zuen Herrerieta kaletik Potzuagara arteko bidean!

Emanaldi bera errepikatu zuten gero Zumaiako Olarru egunean.

Koreografo-lanean, berriro ere, Marisa Merino Dantza Eskolako Joana Del Hoyok aritu zen.

2008 Alandalus

Eskuak eta gonak mugitzen ederki ikasi zuten guztiek, eta orduan ikasitakoak bati baino gehiagori balioko zion gerora ere. Urte hartan ere Zumaiara gonbidatu zituzten, Olarru egunean emanaldia eskain zezaten.

Karrozan irten ziren lagunek "La Virgen del Rocio" kantaren bertsio berria asmatu zuten: "De Getaria y con el Txakolí..."; ederki abestu zuten Artzapetik behera doazen eskaileretan. Gero, maldan gora, oinez joan ziren karrozako kideak. Frontoia, berriz, Andaluziako etxolekin eta balkoiarekin apaindu zuten.

Azken urteetan bezala, Marisa Merino Dantza Eskolako Joana Del Hoyok egin zituen irakaslelanak. Oraingoan ere Zumaian eskaini zuten emanaldi bera.

2010 Baltsa-Charleston, Mexikoko dantzak, Grease eta Moulin Rouge

Koktel txiki bat prestatu dute aurten, eta erronka polita dute aurretik dantzariek; izan ere, tartean arropa-aldaketak izango dituzte. Hori guztia koordinatzea ez da lan erraza; beraz, ez dute meritu makala!

Inguruko herrietan antzeko zerbait egiten saiatu izan dira, baina ez dute lortu. Arrakastaren giltza? Herritarren parte-hartzea, apaltasuna, transmisioa… Belaunaldi batetik bestera eman den parte-hartzearen transmisioa; aurtengo konpartsan ikusiko ditugun makina bat gazte aurreko urteetan izandako konpartsetako entseguak ikustera joaten ziren haur eta gaztetxoak dira, eta, oraingoan, beraiek ere dantzan izango dira beste hainbat dantzariekin batera. Gaur egun ere hainbat haur joaten dira konpartsa ikustera; biharko konpartsakideak akaso?

25 urteko ibilbidea, herritarren parte-hartzerik eta laguntzarik gabe aurrera nekez aterako litzatekeen ekimena

Argazkiak: Udala eta Artzape

elan euskadi
ONGD - GGKE

Lourdes De Los Santos

Joan den Maiatzean, Lourdes De Los Santos kubatar dokumentalista izan genuen gure artean. Esperientzia handiko zinegile honek musika eta nortasun kolektiboaren arteko loturak aztertu ditu bere dokumentaletan azken urteotan.
Horietako batzuek hainbat sari irabazi dituzte nazioarteko hainbat zinemalditan.
Ziurrenik, laster bere beste dokumentalen bat emateko aukera izango dugu Getarian.
Hona hemen, Urola Kostako HITZAk egin zion elkarrizketaren pasarte batzuk:

Zinegile kubatarrak 'Son para un sonero' bere lana aurkeztu du Getarian; musikaren bitartez, Kubaren errealitatea ezagutzera eman nahi du De los Santosek

AMAIA VENTAS

Lourdes de los Santos (La Habana, Kuba, 1955) produktorea eta zinema zuzendaria da. Hamaika lan egina da, eta beste hainbeste sari irabazi du, irlan zein irlatik kanpo. Ostiralean, ELAN-Euskadi elkarteak gonbidatuta,Son para un sonero bere azken lana aurkeztu zuen Getarian. Lehenengo aldia da Euskal Herrian dela, eta, horren harira, kubatarraren ibilbidearen errepasoa egin du Urola KOSTAKO Hitzan.

Son para un sonero dokumentala aurkeztu berri duzu, Adalberto Alvarez abeslariari buruzko lana. Zein da lan horren helburua?
Lan honekin, Kubako kulturaren baitan, musika mugimendu garrantzitsuenetariko bat ezagutarazi nahi dut, sona, alegia. Tradizio handiko musika da honakoa; gerora, saltsa-n eratorri dena. Azken hori aski ezaguna da mundu osoan, baina oinarria ahaztuta dugu. Hori dela-eta, azken lan honen helburua musika-mugimenduaren tradizioa mantentzea da, ondorengo belaunaldiek jarraipena eman diezaioten. Horri helduta, musika estilo horren baitan izen handia duen Adalberto Alvarezen ibilbideari errepasoa eman nahi izan diot. Bere lana ezaguna da mundu osoan, baina gutxik dakite nor den abestien egilea. Ondorioz, Kubako kulturaren ordezkari handiaren irudia ezagutzera eman nahi dut, eta bide batez, herrialdeko kultura zabaldu.

Alderdi kulturala da, beraz, herrialde baten izaera ezagutzeko modurik egokiena?
Hala da. Nire ustez kultura da herrialdea ezagutzeko dugun tresna azkarrena, garrantzitsuena, magikoena. Musikaren bitartez egun ezezagunak diren hainbat eta hainbat alderdi ezagutu daiteke. Hori lortu nahi dut nik: hainbat manifestazio kulturalez baliatuz, Kuba ezagutzera ematea. Modu batean, nire lanek helburu hezitzailea dutela esan daiteke.

Kubatarrek euren lanak ezagutzera emateko arazoak al dituzte?
Artista kubatarrek irlatik kanpoko diskoetxe handiekin ez badute hitzarmenik, euren lanak Kuban soilik entzuten dira. Kubako iraultzaren ondorioz AEBk herrialdean ezarritako blokeoak bertan egiten diren lanek mugak gainditzea eragotzi du. Hala, hainbat eta hainbat artistek irlatik atera behar izan dute, eta beste herrialde batean bizitzen jarri, beren lanek ospea lor dezaten. Horren adibide da Gonzalito Rubalcaba piano-jotzailea. Egun Santo Domingon (Dominikar Errepublika) bizi da, eta hainbat sari jaso du. Kuban biziko balitz bere lanak agian ez luke hainbesteko oihartzunik izango.

Filmografia

-Alicia, la danza de siempre. 39 minutu. 1996.
-Enlaces. 37 minutu.1996.
-Todos a una. 28 minutu.1996.
-Barroca. 12 minutu. 1997.

-Fiat Lux. 27 minutu.1997.
-Johann Sebastian Bach para cuatro pianos y cuerdas I y II. 52 minutu. 1997.
-Identidad. 27 minutu.1999.
-Estado de gracia. 27 minutu.2000.
-Razon de ser. 24 minutu. 2000.
-7 BH. 15 minutu. 2001.
-De mi alma recuerdos (Trova). 54 minutu. 2002.
-A golpe de cancion. 16minutu. 2003.
-Con las cuerdas de la vida. 16 minutu. 2003.
-Sara Gonzalez. 24 minutu. 2003.
-El rio Zaida. 10minutu. 2004.
-Llego el tresero. 27 minutu. 2004.
-Musima Son (Cubadisco). 12 minutu. 2005.
-Ivette. 9 minutu. 2005.
-Servando en tres tiempos. 15 minutu. 2005.
-A tempo. 31 minutu. 2006.
-Son para un sonero. 55 minutu. 2007.

Gar
barne diseinua interiorismo
Garbiñe Ibarbia Gamboa
Colegiado Nº 5158/158
- Proiektuak eta erreformak
- Obra-zuzendaria
- Obra-eta jarduera-baimenak
- Gremio koordinaketa
Kristobal Balentziaga, 7 - Getaria - Tel. 685 75 18 21 garbi.ibarbia@euskalnet.net

CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

] Joxi Erauskin [

Iragana, Oraina, Etorkizuna...

Duela gutxi James Ellroy idazle estatu batuarrari egindako elkarrizketa batean zera zioen, bera iraganean bizi zela bere idatzietan kontzentratu eta garai haiek birsortzearren. Egunerokotasuna ez omen zaio batere axola; hori gutxi ez eta telefono mugikorrik ez omen du eta internetera ere ez omen da konektatzen. Telebista, egunkaria eta liburuak ere ez omen ditu irakurtzen: "Nire liburuak baino ez dauzkat etxean. Ez dut beste inoren ezer irakurtzen" zioen, harro bere buruaz.

Bizitzarekin harremanetan egoteko nahikoa omen du bere lagunekin eta andregaiarekin egotea, eta bere liburuak idazteko behar duen ikerketa guztia beste pertsona batzuei agintzen omen die egiteko, gero horren arabera berak lana moldatzeko.

Eta zergatik egiten du hori guztia? Hara berak zer dioen: "Orainaz eta egunerokotasunaz ezer ez dakit, beti iraganean bizi naiz, zeren eta ahal den hoberena izan nahi dut nire lanean, eta oraina oztopo zait lana egitean. "Tipo" arraroa eta bitxia, benetan.

Portaera hori egokia al da bizitzan? Harentzat bai, noski, hortik bizi baita, eta ondo gainera. Niri, egia esan, zaila egiten zait horrelako bizitza bat irudikatzea: aurrean daukagunari erreparatu gabe iraganari begira bakarrik bizitzea. Gainera, horretaz pentsatzen jarrita, nola liteke pertsona bat iraganean eta denbora guztian atzera begira bizitzea, egunerokotasunetik ihesean? Egia esan, oso zaila izan behar du horrek; izan ere, begi aurrean dugun bakarra orainaldia da beti, momentuan bizi dugunaren jabe baino ez baikara. Momentua da daukagun bakarra. Iragana igarota dago dagoeneko, eta gure barnean oroimenaren bidez dagoen zerbait da, besterik ez.

Hala ere, beti alboan dugu iragana, hura bizi izan dugulako eta hark emandako esperientziari esker gaudelako orain hemen. Gure historia ere iragana da, baina jakin beharrekoa, oraina ulertu nahi badugu. Horregatik, joan zen urtean Getariaren historia berrikusteko aukera izan genuen, eta egin ziren ekitaldi guztietan (hitzaldiak, antzerkia, inkisizio dorreko ekitaldia…) Getariaren iragana aztertu zen. Garai hartan gertatu ziren zenbait datu (aurkitu gabe hor zeudenak, eta, batez ere, Idoia Arrieta historiagileak eta Sustraiak herri-ekimenak egindako lanari esker argitara eman zirenak) azaldu ziren, eta garbi geratu zen orain dela 800 urte Getarian gertatu zena ez zela historia ofizialak zioena soilik.

Orainari argitasun pixka bat eman dio orduan egindako lanak, eta esan dezakegu azkenean bere fruitua eman duela eginkizun hark. Izan ere, ez al da gero garrantzitsua udaleko alderdi guztiek eta Sustraiak herri-ekimenak onartu zuten adierazpen instituzionala? Nik esango nuke horrelako zerbait inoiz edo gutxitan gertatu dela Getarian, eta baita Euskal Herrian ere. Beti bakoitza bere kabuz ibiltzearen ondorioz indar asko galdu da bidean. Beraz, iragana aztertzerakoan bildu ginen Sustraiak taldekook ez genuen hasieran uste horrelako emaitza garrantzitsurik lortuko genuenik, nahiz eta horren atzetik ibili eta esperantza inoiz galdu ez.

Azkenean denok elkarturik kontsentsu batera iristeko gai izan gara, eta hori pozgarria da; sekula gure historia hurbilean ezagutu ez duguna. Bazen garaia horretarako.

Historia ondo dago iragana aztertzeko nahiz gogorarazteko, baina orain aurrera begiratzeko garaia da, eta, aurrera begira, Getarian jarraitutako eredua beste tokietan ere erabiltzea garrantzitsua da, alderdien interesak alde batera utzita. Bestela, betirako aukera duin bat galtzeko zorian egon gintezke.

Orain arte esandako guztia ondorengoak ondo laburbiltzen du:

Belfast-eko horma batean idatzi hau agertzen omen da: "Bi begiekin atzera begira dagoen herria herri itsua da. Begi batekin atzera eta bestearekin aurrera begira dagoena, aldiz, herri zentzuduna da".

Porruak saltsa berdean

Osagaiak:

8 porru

8 xerra urdaiazpiko egosi

3 baratxuri-ale

3 arrautza

Irina

Ura

Olioa

Gatza

Perrexila

Prestaketa:

Porruak garbitu eta ur gazitan egosi 15-20 minututan. Porruen ura gorde. Porru egosiak, erditik moztu eta urdaiazpiko egosiarekin eta gazta-xerra batekin bildu; gero, irin-arrautzetan pasatu.

Olioa isuri eta su eztian jarriko dugu kazola zabal bat. Baratxuria bota eta dantzan hasi dela sumatu orduko (kontuz erre gabe) irin pixka bat gaineratuko dugu. Segundo batzuetan edukiko dugu eztitzen, kolorea hartzen utzi gabe. Porruen salda isuri eta minutu batez edukiko dugu irakiten; irin-arrautzetan pasatako porruak gehitu kazolara, eta, perrexila txikitu eta gero, norberaren gustura botako da. Beste 5 minutuz eduki, eta azkenik platerean atera. On egin!!

Katu jendea

***Idazlea**: Eider Rodriguez (Orereta, 1977)*
***Argitaletxea**: Elkar*
***Argitalpen urtea**: 2010*
***Orri kopurua:** 155*

Eider Rodriguezek plazaratu berri duen hirugarren liburua aurkeztu nahi dizuet oraingoan, Katu Jendea. Lan honekin, idazleak 2008ko Igartza Saria irabazi zuen, baina honako lan hau ez da bere lan bakarra, aurrez beste bi ipuin-liburu idatzi zituen: *Eta handik gutxira gaur* (2004) eta *Haragia* (2007).

Badirudi idazle hau ipuin-bildumak idazten iaioa dela, orain arteko lan guztiak hala baitira. Ipuin-bilduma izanik, kapitulu bakoitzaren atzean istorio bat aurki dezakegu; zazpi kapitulu, zazpi istorio. Istorioen mamia, aurreiritzi eta usteetan dago oinarritua; kalean pertsona batekin gurutzatu eta, zenbat alditan egin ditugu pertsona horri buruzko suposizioak? Janzkera, ibiltzeko modua… kontutan hartzen ditugu aurretik pasa zaigunaren bizitzaz usteak gauzatzeko. Idazleak era gauza bera egin du, eta, parke bateko aulki batean eserita, aurretik pasatzen zaizkion pertsonen bizitzak "eraiki" ditu; lan horretan hainbat motatako jendea ikusi du: institutu garaiko edertasuna atzean uzten ari den erizaina, ama izan eta gero lanerako deirik jasotzen ez duen emakumea…

Lan irakurterraza da; erritmo bizia du eta ez da batere nahasgarria. Zehaztasunez idatzia dago. Idazleak istorio hauek kontatzearekin batera, kritika txiki bat egin nahi izan dio gaur egungo gizarteari: pertsonak epaitzerakoan ezin gara kanpoko itxuran bakarrik oinarritu, barrukoa ezagutzen saiatu behar dugu.



Unai Gereka

Iturzaeta Herri Eskolak antolatzen dituen Eskola Kiroletan probatu zuen lehen aldiz piragua, 2008 urtean; horrenbeste gustatu eta uda hartan Zumaiako Itsas-Gain elkartearekin pare bat ikastaro egin zituen, eta, harrezkero, han dabil buru-belarri.

2009an, jada, Gipuzkoako Txapelketa irabazi zuen, eta, aurten, berriz, infantil-mailako Gipuzkoako Txapelketa eta Euskadiko Txapelketa irabazi ditu; horrez gain, Gipuzkoako Ligan bigarren gelditu da. Uztailaren 23an, 24an eta 25ean, Espainiako Txapelketarako balio duen lasterketan izan da Badajozen, eta emaitzekin gustura gelditu da: K1ean, irteera kaxkarra ostean, 14. postuan amaitu zuen 85 parte hartzaileen artetik; K2an, berriz, Imanol Barrutabeña zumaiarrarekin 9.postuan bukatu zuten berrogei parte hartzaileen artean. Irailaren 4 eta 5ean, Bartzelonara joango dira Espainiako emaitza hobetzeko asmoarekin.

Hasieratik garbi al zeneukan piraguari heldu nahi zeniola?
Bai, Zumaian egin nuen ikastaroan oso gustura ibili nintzen, nire adineko hainbat lagun egin nituen eta asko gustatu zitzaidan. Hasieran, alebin-mailan hasi nintzen, eta, orain, infantil mailan jokatzen dut. Giro oso polita dago, bai gure artean eta baita gurasoen artean ere, gu ikustera elkarrekin joaten baitira, alde batetik bestera.

Noiz izaten dituzue entrenamenduak?
Adin honetan piragua Eskolako Kirolaren barruan sartzen da oraindik, eta, oro har, irailean hasten gara entrenamenduekin, baita lasterketa batzuekin ere; gero, abendu aldera, geldialdi bat izaten dugu, eta, atzera, martxoan hasten gara lasterketak egiten.

Non egiten dituzue entrenamenduak?
Eguraldi ona bada, ibaian; bestela, gimnasioan egoten gara edo korrika egitera joaten gara. Baina beti ibaian.

Gogorrak izaten al dira?
Batzuetan, batez ere, uretan egiten direnak; gutxi gorabehera, ordu eta erdi jarduten dugu. Gainera, orain piraguaren beheko aldean freno baten antzeko goma bat jarri digute, indar gehiago egin dezagun, eta gehiago nekatzen gara. Gero, kendutakoan, askoz ere arinago joaten gara!

Zer piragua mota erabiltzen dira Itsas-Gainen?
Normalean, piraguan hastean (alebinetan), Minikaya erabiltzen da; zailagoa da horiek iraultzea, eta, gainera, motelagoak dira. Gero, K1 (lagun batentzat), K2 (bi lagunentzat) eta K4 (lau lagunentzat) daude, eta, horietako bakoitzean bi motatako piraguak bereizten dira: Amerikanoa eta Sevillakoa.

Zer motatan jarduten duzu?
Orain arte K1ean ibili naiz, eta orain K2arekin hasiko gara entrenatzen, Bartzelonako Espainiako Txapelketara joateko.

Zer distantzia izaten dira lasterketetan?
Iaz, alebin-mailan, 1.500 metro egiten genituen, eta, aurten, infantil-mailan, 3.000 metro. Espainiako lasterketan, berriz, 1.250 metroko ibilbidea da, gutxi gorabehera.

Unai Gereka Itsas Mendi Elkarteko lagunekin.

Kailurik?
Ipurdian ez dut arraunean sortzen den beste kailu; baina, eskuetan bai.

Entrenamenduez gain, jatekoa ere zaindu behar al da?
Ez, nire amonaren babarrun goxoekin ederki elikatuta nago.

Zenbat lagunek jarduten duzue?
Nire adinekoak 14 lagun gaude, neska eta mutil.

Getariarrik?
2008an lau getariar hasi ginen: Aritz eta Aitor Miralles, Julen Manterola eta ni; horiek orain ez dabiltza. Negu honetan, berriz, Mikel Larrañaga hasi da.

Aurrerantzean jarraitzeko asmoa?
Bai, garbi daukat jarraitu nahi dudala. Piraguarekin kirola egiten dut, eta, horrez gain, oso ondo pasatzen dut; ibaian joatea gozamena da!

UXOA SILBETI IRIBAR
Oinetako Erreflexu-guneen Terapiako Eskolako Kidea
Hanne Marquardt-i atxikia. D-7744 Königsfeld-Burgberg

OINETAKO ERREFLEXU-GUNEEN TERAPIA
* Lunbagoa, ziatika, lepoko zartakoak...
* Digestio arazoak, idorreria, hemorroideak
* Anginak
* Lasaitzeko, estresa edo antsietatea kentzeko, lorik egin ezina...
* DRENAJE LINFATIKOA (Oinetatik)
* Zelulitisa, erreuma, asma...

eskura
FISIOTERAPIA ERREFLEXOTERAPIA

Elkano 9, behea. 20808 GETARIA
Argibideak eta eskaerak:
666 523 586 UXOA
697 961 208 JOSUNE

JOSUNE UZIN BERASALUZE
Fisioterapian Diplomatua
E.F.E.O. ZENBAKIA: 1.100

FISIOTERAPIA ZENTROA
* Zerbikalgiak, buruko minak
* Tortikoliak edo lepoko minak
* Sorbaldetako neke edo pisu sentsazioa
* Lunbalgiak eta ziatikak
* Tendinitisak, zaintiratuak

EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN

Udako aisia-garaia!

Uda ia guztiontzat izaten da aisia-garaia; baina, dudarik gabe, haur eta gaztetxoak izaten dira garai hori gehien gozatzen dutenak. Horien adibide batzuk ekarri ditugu txoko honetara: udaleku irekiak, Udalak antolatzen dituen ikastaroak (besteak beste, frontenisa, piragua eta surfa –azken hori Gaztetapeko hondartzan egin ezin zenez Zarauzko hondartzen egin zen–), Txeruk haur eta gazte dantzarientzat antolatzen duen irteera (Seignosseko aquaparkera)… Ekimen horiez guztiez gain, haur eta gaztetxoek badute denbora non pasa aukeratzeko aukera; horren adibide dira moila eta altxerria.

Argakia: Erun

] uztaileko eta abuztuko agenda

] Batelero eguna

[Uztailaren 30a, ostirala]
17:30ean: ontziei harrera
19:00etan: ontzien erakusketa lehorrean

[Uztailaren 31, larunbata]
09:30ean: ontzien uretaratzea.
10:00etan: patroien batzarra.
10:30ean: itsas bilkura, ontzien maniobren erakustaldia eta erabakitako ibilbidearen burutzea
14:30ean: bazkaria eta saribanaketa.
16:00 eta 18:00ak bitartean: moila zaharrean kokaturiko ontzien erakusketa. Ontzien patroiak bertan izango dira jendartearen galderei erantzuteko

] Musika

[Uztailaren 30a, ostirala]
GARIKOITZ MENDIZABAL.
"SOSEGUA" DISKAREN AURKEZPENA
Txistua: Garikoitz Mendizabal
Pianoa: Mariano Santamaria
Teklatua, eskusoinua eta programazioak:
Xabier Zabala
Arpa: Oihane Igerabide
Biolontxeloa: Pello Ramirez
Trikitixa: Kepa Junkera
Perkusioa: Iñaki Telleria
Noiz: 22:30ean
Non:
Salbatore Deunaren elizan

[Uztailaren 31, larunbata
REAL AZTECA
mariatxiak kalez kale
Noiz: 20:00etatik 22:00etaral
Antolatzailea: Basquetur (Eusko Jaurlaritzako Jardunbide Egokien programa)

[Abuztuaren 11, asteartea]
DONOSTIAKO MUSIKA HAMABOSTALDIA.
MUSIKA AITZAKI
DONEJAKUE BIDEA GIPUZKOAN
Bidea jarraituz, Askizutik Elorriagara
IBILALDI MUSIKALA
Goizeko 10:00etan: Askizun, IBILALDI MUSIKALA honi hasiera emango zaio, Getariako GAZTE ALAIAK txistulari taldearekin
Ondoren: Santiago etxean, Zumaiako BEHEKO PLAZA abesbatza
Eta Elorriagara iristen: Galizia etxeko GAITEROAK
Antolatzailea: Donostiako Musika Hamabostaldia

KONTZERTU BENEFIKOA, Sarajevoko "Bjelave" umezurtz-etxearen alde
Tenor: Juan Luis Anasagasti
Pianista: Jaime Lazkano
Noiz: 20:15ean
Non:
Salbatore Deunaren elizan

[Irailaren 24a, ostirala]
DONEJAKUE BIDEA GIPUZKOAN
TIZIANA TAGLIANI
(Arpa Romántica)
Noiz: 20:30ean
Non:
Salbatore Deunaren elizan
Antolatzailea: Xacobeo 2010 Euskadi

] Gaztelekua

Abuztuan itxita

] KZgunea

Abuztuan itxita

] Kirolak

SALBATORE DEUNA XIII. PILOTA TXAPELKETA
*Salbatoretan txapelketaren FINALA jokatuko da
Antolatzailea: Gure Txeru

] Gaztetxia

ASANBLADA
Noiz: ostegunetan, 19:00etan

] Hegoari begira

[Uztailaren 24tik abuztuaren 3ra]
HEGOARI BEGIRA 2010 (XII. EDIZIOA)
ERAKUSKETA eta BIDEZKO MERKATARITZAko produktuak salgai
Argazki erakusketa:
"Darfurreko emakumeak - bestelako begirada"
Non: Gure Txerun
Antolatzailea:
ELAN-EUSKADI GKE

] Jaiak

Abuztuaren 5etik 8ra
SALBADORE JAIAK 2010

FULDAIN farmaziaren zaintza egunak: abuztuaren 30tik irailaren 4ra (biak barne)

SALBATORE JAIETAKO TXAPELKETAK

Abuztuak 4, asteazkena

BALTSA KARRERA

Noiz: 18:00etan

(izena emateko azken eguna; abuztuak 2)

Antolatzailea:
Getaiko Txosna batzordea

Abuztuak 5, osteguna

FESTETAKO II. PLAIERO TXAPELKETA

Noiz: 16:00etan

(izena emateko azken eguna; abuztuak 2)

Antolatzailea:
Getaiko Txosna batzordea

KOADRILEN ARTEKO HERRI KIROLEN VII. OLINPIADAK

Noiz: 19:30ean

Izen-ematea: uztailaren 19tik 30era

Abuztuak 7 larunbata

IX. MARMITAKO

TXAPELKETA

Noiz: 10:30ean

Izen-ematea: uztailaren 26tik 30era, 13:00ak arte

EZKURTXERRI
EGUZKITZA BASERRIA 31, Meaga Auzoa
20808 GETARIA
Telefonoa: 943 240 125
Mugikorra: 690 260 783 - 628 202 768

- Astelehenetik ostiralera 15:00etatik 20:00etara
- Larunbatetan 10:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 20:00etara.
- Igandetan 10:00etatik 12:30era

artzape
GETARIAKO TOPAGUNEA
JARRI ZURE PUBLIZITATEA

Antxirria lehen eta orain



Juana Mari Berasaluzek utzitako argazkia.

Gaur egun altxerritik pasaz gero, hainbat haur topa daitezke txanpon-eske, garai batean "un e peseta a l'eau" eskatzen zuten haurrak bezala. Gaurko honetan altxerrian ateratako argazki bat ekarri dugu, orduko bainujantzi eta "look"-arekin (gaur egun berriro modan dagoen "look"-a) hiru emakumezko ditugu aurrez aurre, ezkerretik eskuinera: Kontxi Etxegoien, Justina Uzin eta Juana Mari Berasaluze.

Atal honetan jartzeko moduko argazki zaharren bat baduzu,deitu 943000548 telefonora edo artzape@topagunea.com helbidera bidali.

zorion agurrak

Juanjo eta Garazi Eizagirre
Abuztuak 13 eta 17
Zenbat dira? 1 gehi 1, ala 11? Aitarena eta zurea zenbatuz, 54 muxu biontzat!

Maitane Berasaluze
Abuztuak 10
Zorionak osaba-izeben eta lehengusuen partetik. Ondo pasa eguna eta muxu handi bat.

Hodei
Abuztuak 6
Dagoeneko 7 urte handi Zorionak txapeldun! Aita, ama eta bereziki Xabierren partetik.

Norbait zoriondu nahi izanez gero, argazkia bere testutxoarekin Txeruko postontzian utzi edo eta Eskualtxetara eraman. Gogoratu! bazkideok doan daukazue eta bazkide ez zaretenok 4 € ordaindu beharko dituzue argazki bakoitzagatik.

Astillero
ANTONIA IRIBAR
Erretegia
Parrilan espezialitatea
kaia, 1
20808 GETARIA Tel.: 943 14 04 12

azkuelek
ELEKTRIZITATEA
K21 KALITATEA Nivel 2
- DEKORAZIOA
- ILUMINAZIOA
- ERA GUZTIETAKO INSTALAZIO LANAK
Tailerra/Denda: Araba, 41 (MAXI) 20800 ZARAUTZ
Tel./Fax: 943.13.04.33 - 943.13.33.08
Mobila: 619.52.35.39 azkuelek@euskalnet.net

ARRAINAK, ITXASKIAK, IZOZTUAK
ELKANO ARRAINDEGIA
KAIA Telefonoa: 943 140 192 20808 GETARIA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

SALBATOREAK 2010

GETARIAKO UDALA

Udalak Salbatore jai zoriontsuak opa dizkizue

salbatoreetan izango dugu
festarako haínbat aukera
jende askoren parte-hartzeak
eta bakoítzan jarrera
horí guztíaz arduraturík
atera zaítez kalera
eman díezaíogun herrí honí
merezí duen janzkera